

Juan Cruz Lakasta

KAZETARIA

## Gogoeta historikoa

**P**aradoxa latza: kazetariok barra-barra darabilgu *historiko* adjektiboa, baina ez gara izaten historian batere aditu. Baiez-tapen erredundantea izan daiteke. Ados nago kazetariok –salbuespen txalogarriak salbuespen– ezertan ez garela aditu dioen topikoarekin. Ni, behintzat, ez naiz. Edo bai, nondik begiraten zaion: aditu naiz aditu ez naizen gaien inguruko informazioa prozesatzen, digeritzen eta modu laburxeagon eta ulergarrixeagoan ematen, libratzen. Edo, gutxienez, horretan saiatzen aritua naiz. Informazio gaindosiaren gizartean kazetariaren funtzio nagusia horixe delakoan nago.

Harira: ez naiz historian aditu, baina bat nator Santi Leone historialari iruindarrak azkenaldian gure herrian indar handia hartu duen historizismoari egiten dizkion kritikekin. Euskal Herri historikoaren alde bainoago Euskal Herri imajinarioaren alde nago. Ez gaitezen lotu Euskal Herria izan zenari. Pentsa dezagun etorkizunean zer nolako Euskal Herria nahi dugun. Ez gaitezen obsesionatu Espainiaren historiografia bertikal eta atzerakoiaren euskal bertsioa sortzen. Saia gaitezen euskal errealitate garaikide horizontal eta aurrerakoi propioa eraikitzen. Antso Nagusiaren koroatzearen milurtekoaren karietara antolatu zituzten mila ospakizunak direla-eta, lagun batek monarka



JOSU SANTESTEBAN

Antso Astuna moduan birbataiatu zuen. Ateraldi ona. Tema hura oraindik ahanzteke dugularik, gainera datorkigu 1512ko Nafarroaren konkistaren bosgarren mendeurrena. Nafarroako Gobernuak dagoeneko “aditu batzordea” osatu du. Batzuk ni bezain aditu dira. Batzordekide dira Sanz lehendakaria, Barcina alkatea, Perez artzapezpikua... Orain arte, historialarien eztabaida izan da ordukoa konkista ala anexioa izan ote zen. Sanzek gaititu du. Hura “inkorporazioa” izan zela adierazi zuen batzordearen aurkezpenean. Noingo bataila dialektikoa izan zen, argudio trukaketa baketsua. Halako ekimenek birrindu egiten dute orain arte jorratu dudana tesia.

Agintari erregionalistek historiaren manipulazio ziztrina gauzatzen badute ezinbestean erantzun behar. Baina ahal dela neurrian egin dadila. Eta ez bakarrik ikuspegi nazionala jorratuz. Aipatu Aditu Batzordeak 1512ko “inkorporazioa” ez ezik Navas de Tolosako batailaren milurtekoa ospatu nahi du. Hura gurutzada izan zen. Garaipen horren ondotik erresuma kristauak Iberiar penintsula osora zabaldu ziren eta penintsula honetako inoizko garbiketa etnikorik handiena gauzatu zuten, milaka eta milaka musulman deserriratu, torturatu, erailez. Hori ere salatu beharko litzateke, bidegabekeria historikoa da eta. ■

◀ Nafarroako Gobernuak dagoeneko

‘aditu batzordea’ osatu du. Batzuk ni

bezain aditu dira. Batzordekide dira

Sanz lehendakaria, Barcina alkatea,

Perez artzapezpikua... ▶

TXANDAN

Andoni Mujika

## Marrazketan...



...suspensio. Behar-bada oker nabil, zoritxarrez ezetz uste

dudan arren, baina egonezina sentitzen dut pentsatzerakoan gure herrian marrazketa librean –etorkizun interesgarria irudikatze eta hartara hurbiltzeko balio duen arte plastiko estrategikoan– ez dabilela inor. Findu ezker, esan beharko nuke, akaso norbait badabilela, baina marrazkilaria txarra da edo inork ez dio bere obrari begiraten. Konstatazio penagarria bata zein bestea. Oraindik okerrago ere esan daiteke: Euskal Herrian marrazketa libreak beldurra ematen digu. Eta horren aurrean, beldur edo inkompetentzia horren

aurrean, itsu-itsu, erosoago sentitzen garen lurraldera jotzen dugu azkar, egunerokora, ekite

automatara edo zentzunbako kudeaketara. Esaterako, Jaurlaritzaren epelera edo urtetako jokamolde fosilizatu/komentzionalen erreproduktzioa. Eta altu esan behar dut: lider politiko, abertzale, kooperatibo, sozial eta abar horiek ez daukate perfilik gure herria gidatzeko, ez baitira gauza, ez biderik marrazteko, ez bidezidorrik, ezta autobusik gidatzeko ere. Bidaiari lokartuak dira. Hauen artean instalatu dira gure esperantza kapitala –epe fijoan jarria geneukana– kudeatu behar zuten zenbait anai-arreba politiko, abertzale, ezkertiar, kooperatibo eta sozialak. ■